**ZUZENEKO ARTEEN BATASUNA COVID-19RI AURRE EGITEKO**

Alerta egoeraren bigarren egunean zuzeneko arteak ordezkatzen ditugun elkarteak bideokonferentziaz elkartu gara, hain zuzen ere, EAB, Eskena, ADDE, Artekale, Besteok, EZE, EHAZE eta Musika Bulegoa (antzinatasunaren araberako ordena).

Herritar modura bat egiten dugu Covid-19 birusaren ustekabeko pandemiari aurre egiteko ahalegin komunarekin, eta esker ona adierazteko mezu berezia igorri nahi diegu gaixotasunari aurre egiteko borrokaren lehen lerroan dauden pertsonei, gizarte osoaren bizi konstanteei eusteko haien lanbidetik eta lan ezin hobea egiten ari direnei, hain justu ere.

Gure kultur jarduera ez da ekoizpen industrialaren modukoa. Desberdinak dira gure obren sortze eta ekoizpen prozesuak, banaketa, lan harrenanak eta gizarte segurantza erregimena. Enpresa, talde eta sortzaile profesional anitz ugari biltzen ditugu; guztiak zuzenezko arteak pasioz bizi dituztenak. Orotara, 1.600 enpresa inguru gara, batez ere enpresa txiki eta ertainak, eta 4.000 enplegu zuzen baino gehiago biltzen ditugu.

Halaber, profesional garen aldetik, agertokietako jarduna bat-batean eta erabat itzaltzeak eragindako shock mingarria bereziki ari gara pairatzen. Oraindik gainditu ez dugun krisi finantzarioaren ondorengo 'hilez hileko' diruzaintzarekin, krak honek berehalako epean suntsituko ditu soldatak eta bizitzeko moduak (dagoeneko gertatzen ari da). Epe ertainean gure jarduera eredua nabarmen baldintzatu dezake eta kalte konponezina egin diezaioke koronabirusaren ondorengo zuzeneko arteen ekoizpen sareari.

Horregatik, sektoreko elkarte sinatzaileek publikoki adierazi nahi dugu **sektore guztia modu aktiboan elkartzeko konpromisoa dugula**. 'ZUZENEKO ARTEAK RESET ARTES EN VIVO agertokietako jarduna berrabiatzeko mahaia' sortu dugula jakinarazi nahi dugu. Une honetan, elkarlanean, gure enpresa, konpainia eta profesionalen integritatea elkarrekin defendatzeko erronka jarri diogu geure buruari, eta krisiaren ondoren jarduna ahal bezain baldintza onenetan bueltatzea antolatzea.

Hartara, zuzeneko kulturarekin lotutako entitate publiko eta pribatu oro gonbidatu nahi dugu mahai honetan parte har dezan. Administrazio publikoaren parte hartzea bereziki eskatzen dugu, hiru mailetan: Eusko Jaurlaritza, Foru aldundiak eta Udalak. Orain, gaur egun bizi dugun salbuespen egoerak salbuespen izaerako ahalegin eta tresnak eskatzen ditu, eta argi eta garbi baieztatu nahi dugu ezinbestekoa dela aurretik dugun 12-18 hilabeteko aldirako erantzun adostuak, ko-gobernantzakoak, emango dituen plana finkatzea.

Lan komun honen helburu bakarra enplegu eta elkarteen sare guztia ahal bezainbeste zaintzea da, artea gizartean garen neurrian, gure arduretara itzul gaitezen: existentzia azaltzea eta irudikatzea, eta gure gorputzen bitartez kritikarako, inteligentziarako eta sentsibilitaterako espazioak irekitzea. Eta datozen garaietarako ekarpen erabakigarria: talde izaera berreskuratu, giza harremanak berrezarri eta elkarrekin egoteak sortzen zuen poza berriro bizi.

**UNIDAD DE LAS ARTES EN VIVO FRENTE AL COVID-19.**

En el segundo día del estado de alerta, nos hemos reunido por videoconferencia las asociaciones que representamos a las artes en vivo (por orden de antigüedad): EAB, Eskena, ADDE, Artekale, Besteok, EZE, EHAZE y Musika Bulegoa.

Como ciudadanos y ciudadanas compartimos el empeño común para hacer frente a esta inesperada pandemia del Covid-19, con un agradecimiento especial para todas aquellas personas que desde su profesión y buen hacer están en primera línea en la lucha contra la enfermedad y por el mantenimiento de las constantes vitales de toda la sociedad.

La actividad de la cultura es diferente a la producción industrial. Son diferentes nuestros procesos de creación, de explotación, de relación laboral y seguridad social. Reunimos una diversidad de empresas, colectivos y profesionales creadores apasionados por las Artes en Vivo. Somos cerca de 1.600 empresas, pymes fundamentalmente, y más de 4.000 empleos directos.

A su vez, como profesionales sufrimos el shock especialmente doloroso del apagón súbito y total de la actividad escénica. Con una tesorería 'mes a mes' tras la reciente crisis financiera de la que aún estábamos saliendo, en el plazo inmediato este crac arrasará (lo está haciendo ya) salarios y modos de vida. A medio plazo, puede condicionar profundamente nuestro modelo de actividad y afectar irreparablemente al tejido de producción de las artes en vivo post corona virus.

Por ello, las asociaciones del sector firmantes queremos manifestar públicamente nuestro compromiso por la **unidad activa de todo el sector.** Anunciamos que hemos creado la 'Mesa por el reinicio de la actividad escénica ZUZENEKO ARTEAK **RESET** ARTES EN VIVO'. De forma colaborativa, defender codo con codo la integridad de nuestras empresas, compañías y profesionales, y organizar para después la vuelta a la actividad tras la crisis en las mejores condiciones posibles.

A tal fin, queremos invitar a participar en esta mesa a todas las entidades públicas y privadas relacionadas con la cultura en vivo. De manera especial, solicitamos la participación de la Administración Pública en sus tres niveles: el Gobierno Vasco, las Diputaciones Forales y los Ayuntamientos. La excepcionalidad actual demanda herramientas y esfuerzos excepcionales y afirmamos que es imprescindible establecer un dispositivo que dé respuestas conveniadas, de co-gobernanza, al próximo período de 12-18 meses que tenemos por delante.

El único objetivo de esta acción común es el de salvaguardar todo el tejido de organizaciones y empleo que sea posible para, en la medida de que somos arte en sociedad, volvamos a nuestras responsabilidades: recrear y explicar la existencia, y abrir por medio de nuestros cuerpos espacios para la crítica, la inteligencia y la sensibilidad. Y para el tiempo que se atisba, una contribución clave: recuperar lo colectivo, restañar los vínculos sociales y encontrar la alegría de estar de nuevo juntos.

EAB · ESKENA · DANTZA ADDE · artekale · Besteok · eze euskal zirku elkartea · musika bulegoa · EHAZE